

LUZIA

I

-Bruno, zeuk nai dozunean jagi-dinotso Luzia amak.

Ots hau entzunda, oe bigun eta epel bat iruditzen dogu. Baina, bai zera! Lur gogorra da Brunoren oea. Ez da oolik, ez, zementorik. Arlosarik gitxiago. Lur soila; lur baltz, ankerra. Orraitio, oe egiten dauan lekuan, zizurkatutako gorputz bat artzeko lain dan plastikozko papela.

Txabola bat da. Lau ertzetan taketa. Taketetik teketera edozelan josiriko ool zaar batzuk. Gainean, teilatu bezela, sastarretan gauzeztat bertan beera itzi izan dituen burdin-orri mailatuak, zelanbait taiututa. Eguzki-errainu zorrotzen ziriketetatik aske gelditzeko, beintzat, naiz eta barruan kanpoan besteko beroa sumatu. Edo aundiagoa.

Euria danean guztia ezotuta gelditzen. Eta au aizeagaz batera badator, bitartez aserik dagozan ool zaarrak ez dira gauza euriteari barrunbeheraino sartzerik galerazoteko.

Jagi da Bruno eta leenengo bere itzak: Ama, gose naz!

- Ez dago ezer, maitea. Kanpora joan bearko dogu bilatzera. Geunkan azkena bart jan genduan.

-Baina, ama, ni gose naz, gose! -erreguka.

- Eskean ez dogu goserik asetzeko ainbat batzen. Aspaldian nabil zereginen bat aurkitu nairik. Guretzat ez dago lekurik. Ez gaitue gura-erresuminez.

Ama-semeak, kolore-zuri azal azpian, agirian ditue azurrak. Azal utsa dira. Azal eta azur.

Brunok barriro:

-Ama, gose naz, gose! -leiaz, arrenka.

Amari erdibitu egiten jako biotza semearen antziz eta, deadar garratza ez entzutearren, kanpora doa. Zeozer egin bear semearen gosea, baita berea, asetzeko.

Bruno an gelditu da etsita. Geroago ta abots gogorragoz, zarata baten, negar-sotin mingots artean eta lurra esku biekaz joka:

-Gose naz, goseee, goseeee!

Amorruz zoratuta datza. Bere negar-marraskak kapaz izango armolezko biotz gogorrenak biguntzeko. Baina inork ez deutso kasurik egiten ez dau entzuten eta. Eta, entzunda ere, jendea urduriegi dabil beste zereginetan, mutiko txiro ta beartsu baten garrasi ta deiari kasu egiteko.

Bruno bera aspertu da ainbeste negar eta garrasiz. Alperrekoak dirala konturatu da. Pol-pol irakiten dagoan biotz-ontziko amorrua baretu daiten, arnasa sakon bat artu, esku ganeekin igurtzi latz batzuk egin begi bietan eta legortu ditu begiak. Gorputza botata dauka lurrean. Barne-bultzada kementsu bat emon, etsita dagoan lekutik jagi ta atera da au ere urirantz.

-Emen negar ta garrasika ez naz gosegabetzen. Noan urira. Ez ete dot aurkituko persona biozperaren bat? Ea gaur erara datorkidan.

Ohol eta burdin-orrizko txabola Bilbo uriburutik urrin barik dago, kanpo aldean; mendi egalean. Aldapan beera doa gure mutikoa oldozkor eta belun.

II

Guraso pobre batzuen alaba da Luzia. Bere istoria oso arrunta; erri txikietako aunitz neska gaztek bizi oi dabena. Erri txiki baten jaio.

Gosearen alaba; gosez jaio ta gosez azi. Adina arean gordintzean uriburura bialdu eben bere gurasoek.

Emen neska zaar aberats baten neskame. Gosea kendu ebanean, arpegi kolorgean matrailatxo gorriskak hasi jakozan agertzen. Mutil gazteekin kakoa eukiterainoko bestean edertu zan. Euretarike bategaz maitemindu ere bai.

Mutilekin gorputz-tratu sakonetan ebilzan neskentzat, tratu orrenbarri kanpo aldetik ez erakusteko erak zabaldua egozan. Baina, erri txiki batekoa izanez, ez jakina zalako; edo diruaik ez txautzeagaitik, -irabazten ebana ere oso gitxi zan-; edo, eta bearbada geiago, berak senargai uste ebana ez galtzeagaitik. Kontua da, gure Luziak seindun asmau ebala bere burua.

Aste batzuk igaro ziran bere lagunari esan orduko. Noizbait esan bear; ez ekian, baina, zelan. Txarto artuko eutsalakoaren susmo samina eukan. Ezbai naigabetsu onek mututu egiten eban.

-Gaur derrigor esan bear deusat.

"Gaur" ori urrengorako gelditzen beti. Guztiz moteldu eban ardura onek. Orain arte itzontzi bat izan zana, egun goibel, antxul, nekazuri, itz labur dager. Begiratze noragabea kanpo aiderantz, arrangura zitala barnera. Ez bakerik, ezta atsedunik.

Bein, adiskide itxuran -antzean bakarrik ikusiko dogunez- ondoratu jakon lagunak zerbait oi-eza nabari eban neskearengan. Ixilik joiazan alkarren urbilean. Inoiz baino geiago itsastzen zan neskea mutilaren gorputzean. Mutilak noizean bein arpegira begiratzen eutsan. Ez zan maite soaldia. Zer pentsatu emoten eutsan ain arduratsu, ain triste ikusteak. Baekizan euki zituen gorputz arremonak eta kardabak estutzen bere bularra.

-Asmatzen nagona balitz? -Eta alako dardara zaust-eragile bat sentitu eban burutik oinetara.

Zalantza zanpatzaileak jakin nai bizia sortu eban sasiezkongaiarengan. Geratu zan, ba; Luziaren aurrean jarri, begiz begi tinkatu ta otozotoan eta samurtasunik gabe:

-Zeozer jazoten jatzu. Gaur triste ikusten zaitut.

- Ez; ez jat ezer jazoten -labur eta ezpainetan irribarre bat marrastu gurarik.

- Ez eidazu ezetzik esan. Arpagira begiratzea da naiko zerbait daukazuna igarteko. Gainera, besteetan ain itz jario zara, ain alaia. Oraindino ez deustazu itz bat ere esan.

- Ez daukat zer esanik. Aste onetan ez jat ezer jakingarririk gertatu -

atxakitu eban labur, motel.

-Alperrik zabilz eskutatzen. Agiri-agirian dago nekeren batek zauritzen zaituana. Ez dinozu maite nozula?

-Bai, eta zelan!!! -begietan biotzaren sua agertaraziz.

-Baten bat maite danean, geure barruko kezka iragarritz erakusten deutsagu gure ongi-naia. Badakizu nik maite zaitudana. Eta zu pozik ikusteagaitik edozer egiteko prest nago.

Itz oneek entzutean poz-asazkaldia nabaritu eban Luziak, eta bularra edatu aizea ugari artuz. Askatasun arnasa! Orduan, zabaldu eutsan den-den bere biotzeko atea eta sartu eban maite-gaietan jarduteko erabili oi dan gela ezkutu orretara.

-Seindun naz. Pozten zara, ezta? Oraintxe esan deustazu maite nozula eta. -Adi-adi gelditu zan erantzunaren zain, begi biak zabal-zabal zuloetatik urten bearrean jakinguraz.

-Bai? Egia da? Zelako atseginaldia emoten deustazun! Beraz, aita izango naz! Ori baino barri oberik ezin izan deustazu emon. Orregaitik izan dira zure larritasun eta ardura guztiak?-itxurgatu eban sasiezkongaiak.

-Alaitzen zara? Orduan, ezkondu egin bearke dogu -xalotasunez.

-Jakina ezkonduko garana. Gurasoekin itz egin bear dot leenengo. Datorren domekan, barrero alkar ikusten dogunez, erabagiko dogu eguna ta non ezkondu -onek, ostera, maltzurkeria gaiztoz.

Luziak, pozaren-pozez, eztanda egin aginean eukan biotza. Oratu eutsan esku biekaz arpegia lagunari eta mosu zaratatsuz estaldu eutsan guztia. Azkenengoa, orraitio, ezpainetan. Luzea, lau ezpainek bat egin arterainoko ertsia, esker ona erakustekoa, barneko sentimentu osoa maitearengan insuldatu nairik.

Nasaiago aurkitzen zan. Barrero iragarten txori kantaria. Txor-txor, atertu barik erion bere itza. Kale estu batzuk igaro zituen Luziak bakarrik itz egiten ebala eta dantza leku baten ate aurrean egozala konturatu ziran.

-Sartu gaitezkan -esan eutsan neskeak- gure albiste zoriontsu au ospatzeko.

Gabeko amaikak izango ziran, gitxi gora beera. Sartu ziran eta goizeko irurak arte egongo ziran an etenik gabeko eta kontrolaezineko mugimendu erritmikoetan. Neke-neke eginda azkenerako, etxera biurtuta erabagi eben. Mutilak lagundu eutsan etxeraino. Oneik neskameentzat eukan ate berezitik Luzia sartu aurretik, agurtu eben alkar mosu edatsu-maitekorrez, itxura baten. Domekan bateratuko ziran lekua ere izentatu eben. Biok ekien kale-argi baten oinetan.

-Domekararte.

-Bai, agur. -Eta beste mosu labur, arin bat.

Leenengo kale-kurutzean suntsitu zan mutila eta gelarako eskilarak artu zituan neskeak. Aspaldian ez eban lo askorik egin. Egun aretan lo baten igaro eban gaua. Naiko lo egin orduko jagi bear! Baina lo gitxi eginda egon arren beste eragin bat erakusten eban zereginak betetzeko.

III

Berarizko zorion eguna eritxon iganderarteko astea luze egin jakon. Segundoak, ordu. Baina aldia bajoian gelditu barik eta, nekez bazan ere, eldu zan domeka ori. Pinpirindu eban gorputza burutik oinetara. Besperan geratu jakon asti une bat, ule-apaintzailearengana joateko baliatu eban. Ule baltz-bizi ugaria eukan. Dotorea berez. Baina apaindu ezker...! Gabaz, bear ziran erak erabili zituan, ule apain orreek ez naaspiltzeko.

Logelan ate-ao biko armairua. Ate-ao bata, betean, ispilu. Barruan jaietarako jantziak gordeta. Ez eukan askotzarik aukeratzen asi ezker. Bi, iru bat ziran guztira. Bere ustez, dotoreen joateko egokiena autetsi eban. Onetarako saioaldiak egin zituan. Ispilu aurrean okozpetikbeera jantziak ezarri, eta gorputzari ona, ara ikara ponpoxak eraginez.

Bata edo bestea aukeratu bear eta, euretatik bat autatu eban azkenez. Osoa, ez bi zatitakoa.

Larrosa kolorezkoa zan. Samarainokoa goi aldetik. Mear, garrian. Belaunetatik naiko gora, berna, luze, lerdanak agirian gelditzen zirala. Oneek zutabe fin landuak, goitien eroen altxor bikaina jasateko duinak. Bularrak, bai ez asmatzeko eran jantzipean. Eta gainean, jersei zuria botoiak lotu gabe, bular-konkortxo bietatik beera zabalik. Bete-beteko konbinaketa.

Iztondorainoko galtzerdi baltz-gardenak, berna-izterrek ezkututzen zituelakoan, euren txairotasuna nabarmentzen ebela. Eta oinetan, gorputz-irudia sekailago agertu eiten, takoi luze-meedun zapatak. Oneek ere baltzak.

Gorputz ataletatik, orraitio, ederrean gorenena arpegia zan. Ez aundi, ez txiki. Ez borobil ezta luzanga. Neurri-neurrikoa. Ezpain estu, politak ao txikiaren ate. Klabelin pipilak! Agin zuritxikiak ostein; perla zuriak sarrera apaintzen. Batez ere, begiak! Berdeak, kolorean; izarño dizdizari bi ortzitxo beltzaran aretan.

Kiabelin pipilak larrosa kolorez nabari-arazi zituan. Baita matraila beltzarana. Baina doi-doi. Bere gorputz liraina ispiluan azken aldiz begiztatu ondo. Ederretsi eutsan. Atsegin-irribarretxo bat egin, zabaldu atea ta eskilaretan behera abiatu zan kalera.

Egaz gelditu barik irudimena, txori egalarrien antzo. Gorputzak lur-astun indarraren erakarria galdu eban, eta mota guztietako lorez eta arbola ederrez bete zan bere barneko baratz joria. An ebilzan irudiak, mitxeletak eta erleak lorerik-lore eta txoriak adarrik-adar ibili oi diran erara. Mundu zorarazle baten sartu zan. Poza, alaitasuna, lilura besterik sentitzen ez dan mundu maitagarrian. Aizeak erabilen kulunkatuz. Biotza xegia ainbeste pozaldi eroateko. Gogoan zituan eta, bein eta barriz iraultzen, maitearen aotik entzundako zorion itzok:

-Beraz, aita izango naz! Ori baino barri oberik ezin izan deustazu emon.

-Jakina ezkonduko garana!

Egi-egitzat eukazan. Atzipetuko ebanaren zalantza kaxkarrenik ere ez jakon bururatti. Zer gura eban besterik ezkontzea baino? Ez zan, ba, orrexegaitik seindun geratu? Gogo onek eta maitasunaren grinak itsutu eben arras. Eta bere biotzeko bozkarioak amesetan eragin:

-Gaur izango da bizitzako egunik oroigarrienetarikoa. Noiz eta non ezkonduko garan jakin! Ezkondu; au poza!!!

-Jai orri dagokion bezelako jantzi jaio, jaukal bat egin beharko dot. Egundokoa! Eskerrak orretarako txanpontxo batzuk aurreraturik daukadazana.

Ez eban oartu une onetan aurki-lekuko farola garaitu ebanik. Aurrera joian. -Au benetako zoraldia! Zein gozoa izan bear dauan maiteminez zoro egoteak.

Igarri eban bear baino aurrerago joan eta atzerantz biurtu zituan bere pausoak iker-lekua aurkitu arte.

- Niri emon deustan pozaldiak, ni, beintzat, zorabioz bete nau, biotza leer agian jartzeraino.

Farol-oin ondoan baratu zan. Argiak goitik beera ixurtzen bere argitasuna. Luziari emoten eutsan eta inguruko itzalaknabarmentzen eban; aren irudia zirrintetan ederragotuz.

Oraindino mutilaren aztarrenik ere ez. Iganderoko usorioa zan ori. Ordu erdi bat gitxienez itxaron bear. Orrexegaitik ez zan bat ere artegatu eta bere barne-baratz zoragarrian galdu zan barrero ameslari.

- Nire maitea eltzen danean zenbat ixkintxo esan eta egingo deusadazan!... Gaur inoiz ez beste!

Zorabioak eraginda ijuti batzuk egiteko gogoak sakatu eutsan gogor. Bat-batera oartu eban baebilela jendea bere inguruan eta ez zan ausartu orrelakorik egiten zorotzat artuko ete ebenaren bildurrez.

- Bakarrik banengo, a, zelango jauzialdiak egingo neukezan! Eta maitea ondoan baneu!... zizpuru bat bota eban-. Emen, jendearen aurrean poz-arrangura ere gorde egin bear!

Joan joian aldia. Ia ordubete. Laguna ez zan agiri. Urduritzen asi zan. Bereala baratzeko eguzki bizigarria laino baltzak estaldu eben, dana ilunpe bidean sartuz eta ostean etorren ekaitz ikaragarriaren iragarpen.

-Ez ete da etorriko, gero? -artegatu da.

-Ez eustan maite ninduala esan, ba? Nigaitik edozer egiteko prest egoala?

-Zerbait jazoko jakon, bearbada, eta ezin eban arinago etorri izango - atxakitu eban, bere biotz aultza baretuz eta ilunaldian argi-txinpartatxo bat ixiotuz.

Pentsaera onek geitxoago itxarotera bultzatu eban. Zurrunbilo bat zan Luziaren burua. Geiegi itxarroteak etsi egiten personea eta Luzia ere ustegabetu zan ordu -Verdi itxaroten egonik.

-Eragospen aundiak egonda ere eldu bear eban oraingo.

Larri, burua makur, maitagarritz beteriko barne-baratza ekaitzak osoan bereganatuta ,urduri, kezkatu, persona itxura galdurik, etxera bidean jarri zan negarrari eutsi ezinik.

Emen bere logelan sartu, oe gainean etzun eta negar egian gogoz. Orduak egin zituan orretara. Agortu jakozan, noizbait, negar-iturriak. Guztiz legor

eta sentipenik ezean geratu zan. Pentsatzeko adorea ere akitu. Jesarri zan oe gainean, begi biak zabal-zabal. Begirada galdu noragabea. Burua lau, uts. Ikararik egin barik igaro eban gau guztia. Eskerrak otzik egiten ez ebana, bestela, gorpu geldituko.

IV

Goizean, lanerako orduan, ez zan agertu. Karmen etxanderea joan jakon logelara. Sartu ta momia bat aurkitu eban. Ilotza zirudian. Sarrakioz erasoaldi bat emon ez eutsanean eta bertan gelditu...! Dardaraka artu eutsan eskuncrako eskua. Ez egoan ain gogor.

Ikutukera onen eragina asmau ebanean bere seneratzen asi Luzia. Erdi oarmenaren baitan ulertu ezineko zerbait inoan agin artean. Arianarian esnatuz etorren, zearo konorteratzerarte. Une onetan bere etxanderea ikusi eban aurrean. Oso urduri jarri zan. Ez ekian ze jas emon bere gorputzari. Burua batera ta bestera eragin, eskuak, bata bestearen atzamar puntak igurtzi.

Karmenek:

- Zer jazo jatzu?

- Ez dakit.

-Osagileari deitu bearko deusat.

-Ez, ez. Ez dot bear. Joan jat gatxa- durduritasuna biziagotuz.

-Zeuk nai dozuna. Baina osagileari deitu bear geunskiola da nire eritxia. - Ez, arren; ez eizu olakorik egin. -Orain benetan otoizka, esku biak alkaturik eta begi-biotzak aon zituala. -Gosariagaz joango jat dana.

Sinistarazi ebalakoa egin eban Karmenek eta joan zan, baina kezkatu. Luziak jaietako soinekoa aldatu eta lanerakoa jantzi eban. Itxuratu ulearpegiak eta laster egoan gosaltzen. Beti bezela egin zituan etxe-garbiketak, baina triste, barruko atsekabeari eutsi ezinik. Igatu jakon arras irribarre sorburua. Samin erakusten arpegia noiznahi. Begiak barru-gale ebilzan; izan ere, barruan eukan gordeta itsas sumina. Eta uin gogorren zartadak j kSah bear izan zituan aste guztian.

Eldu zan igandea. Etxean geratu zan, logelan ezkutatuta, bere sekretoaren barri danak jakingo ebenaren bildurrez. Beretzat bakarrik gorde nai. Eta maitearentzat. Baina au non ete?

- Ain zoriontsu nintzan domekan eta zein zoritxarreko sentitzen nazan gaur!

- Ainbeste maite agindu. Ainbeste maite erakutsi! Dana guzurra! Guzurra!!!

Erraietan eroan seina gogoratu jakon.

-Eta onekin zer egingo dot? Au lotsaria!!! Ezkondu barik eta aurdun!!!

Onelako gogaldietan igaro eban arratsalde guztia. Atsekabeaz ez eban goserik asmatzen eta afaldu bage oean sartu zan bururakizunez naasturik. Ez eban lorik egingo. Min ertsi-sakonak atsedenerako astirik ez eutsan emoten.

Agertu zan igande barria ere.

Zerbait egin bear dot nire egoera gogaikarri au konpontzeko. Ezin neike iraun onetara bizitza osoan. Mutila aurkitu bear dot eta jakin ni izteko izan dituan errasoia.

Iru edo lau domekatan arakatu zituan uriko dantzaleku ezbardinak. Errasturik ere ez. Lurlezaren batek irentzi eban, itxurea. Ez eben geiagotan ikusi.

Iru ilebetera joian seindun zanetik eta nabari antuagotzen eukan sabela. Karmeni ez jakon joan antz-emon gabe, naiz eta inoiz ez ekarri berak umerik.

Karmen au oso eleiza zalea zan. Egunero bere meza ta jaunartzea. Bazkari-afari aurretik otoitz egin. Iluntzetan errosarioa. Orrelako bizikera daroen askok bezela, besteen utsak ulertu bearrean, gogor zalatzera eta zigortzera errezago joten ebana.

Goiz baten, bakarrean artu bere gelan, eta neskeari arnasea artzeko astirik emon barik, farrastan, biguntasun eta errukiaren aztarrenik gabe, itz latz bilosez, plaust:

-Ernari zagoz, ezta?

Bei bat edo asteme bat izan balitz ere...! Il ez zanean Luzia!

-Autortu eizu zure pekatua -jarraitu eban Karmenek.

Luziari oatu jakozan miin-biotzak, bularra zanpatu, zanak gogortu odola ere unetxo batez trikaraztzeraino. Arpegia ubel. Eriotza berbera zirudian. Izualdiz bete zan etxanderea. Uste izan eban amaia eldu jakola.

Bat-bateko zarrastaren eragina izan zan bakarrik.

Beti emakume berberaren aurrean ikusten eban bere burua.

Andra anker, ulermen estua. Au zan epailaria; bera, gaizkilea. Tupustean berotu jakon odola eta lotsaren-lotsaz musua gorri-bizitu belarrietaraino.

Luzia beretu zala ikusi ebanean poz-arnasea artu eban gogoz Karmenek laztura uxatzeko eta batere kupidarik gabe jarraitu eban epaia:

-Seindun zara. Ori ezin leiteke kukutu. Nik uste izango neban, ba, orrelakorik egingo zeunstanik? Ori baino neska aratzagotzat zeunkadazan. Ederra sartu deustazu! Norekin ezkondu eukiko dozula uste dot. Or daroazuna ez zan berez etorriko, ala bai? Nire etxea izen oneko etxea da eta ezin dau jasan lotsaririk. Ezkondu edo kanpora. Zeuk autetsiko dozu.

Luziak ezin eikean besterik egin. Begiak itxi betazalak bortizki sakatuz eta etorren zaparradea artu.

-Astebururako jakin nai dot erantzuna- erabagi eban Karmenek epaiari akabera emonaz.

Etxekoandrearen eskakizunari ezin etsi. Noraezeko bidean ikusten zan. Edozein erabagi artu ta ezbaikoak danak. Etxea gogoratu jakon.

-Zelan joango naz etxera? Gurasoak, euren alabea orretara ikusiaz bakarrik, guztiz izutuko dira ta ez nabe etxean artuko. Eurei ao txar ori emon baino naiago dot il. Gainera, zenbat barregarrikeria lizun eta iseka garratz entzun bearko erritarrengandik!

Umea galtzea ere bururatu jakon.

-Erail egingo ete dot bera eukitea izan bada egarri beroenaz irrikatu dodan guraria? Betiko galdu dot maitea. Maitearen argazkia eroango dot nigaz.

Ainbesterainoko maitasuna eutsan! Orregaitik ez eukan gorrotorik biotzean. Utsa bakarrik! Lagunaren uts etsia!

Ez eban itxaron astebururarte. Egun aretan bertan ebatzi eban zer egin.

-Ezagutzen ez naben uri batera joango naz eta, besterik ez bada, eskean egingo dot.

Jaso zituan bere gauzatxoak, zorrotxo baten sartu eta bultzi-geltokiratu zan. Bilborainoko txartela eskatu eban emen. Uri onetan ezin izan eban lan posturik aurkitu. Eskean jardun bear, bizirik irauteko. Aitaturiko txabola zaarra zan bere egon-lekua.

Zazpiren bat ilebetetara erditzeko ordua eldu jakon eta Basurtoko ospitalean ekarri eban Bruno bere semetxoa.

V

Bruno txikia zala, besoetan erabilen eskean jarduten ebanean. Ume txikia ikusirik ukiberatzen zan jendea ta ez eukan jatekoaren faltarik. Eskuzabal agertzen ziran uritarrak. Mutila urteetan aurrera joian. Orduan biak asi ziran eskatzen eta andik aurrera murrizuz joiazan limosnak.

Bilbon etxerik geienak atezain automatikoa daukie. Atariko atea zabaldu ezik bizilekuetara ezin igon. Tirrina jo. Itxaron alditxo bat eta:

-Nor da? -goitik.

-Eskean nator. Sem... -Ez deutso itzi amaitzen. Ixildu da goitiko itza eta alkarrizketa moztu.

Beste bizileku bateko tirrina jo. Emen ere bere erazoa azaltzen asi orduko autsi dabe arremona. Noizean bein lortzen dau norbaitek atea zabaltzea oarkabean, oituraren eraginez, jakina. Edo batenbat kaleratzea, baliatzen dau sartzeko gaurkoan bezela. Baina, ala bearrez, txaka-txaka oinez igon bear izan ditu eskilara luzeak igongailurik ez dago eta. Gorengo bizilekuraino, etxe-maila gurenenetik beera lama burutzea da ta bere ekandua.

Goia jo orduko ainbat egotaldi egin bear. Ez dauka indarrik. Gosearen alaba biurtu da barriro umea kaskondu jakonetik eta gosea kenduko dauanaren esperantzak adoretzen. Eldu da goraino. Arnasestuka, birrikak ao puntan bota bearrean, biotza taupada izuan nekearen nekez. Atsedenaldi bat artu biotzaren taupadak bere erritmoratu arte.

Tirrin egin dau eta zabaltzen dabe atea barrutik. Ikusiaz batera itzik ere. Ez deutso itzik egiteko astirik emon. Urrengo atera. Emen ere jokaera bardina. Irugarrenean, orraitio, ez deutso ain arin itxi atea. Itxaropen argiak errainutu dau Luziaren kolkoa. Burua makur, irudi apalean ditxaro. Etxekoandreak badaki zertara datorren baina:

-Zer nai dozu?

Begiak larri, lele-arpegia, eskuak bular gainean kurutzetu eta mantso-mantso errepikatu etenik gabeko leloan eta kantu marmarian:

- Limosnatxo bat. Ez daukat zer jan. Semetxo bat daukat, a ere gosez.

Negarrez itzi dot txabola zaarrea.

- Egizu lan eta ez dozu eskean ibilteko premiarik izango.

Farrastan itxi dau atea danbateko batez. Oituta dago orrelakoez eta aundiagoez; baina ezezkoa emoten deutsien bakoitzean, zarrasta garratz-mingotsak zauritzen bere barne-ondoa amorraraziz eta zarataka jaulki gurarik esanezinezko bere naigabea.

-Maitasunaren oker bat izan bizitzan eta noiz arte iraun bearko ordaintzen?

Baten baino geiagotan asmau dau bere burua iltea. Eta bideak egokitu ere bai orretarako. Aspergarri egiten jakon bizitza. Bera bizi zan erara bizitea ez zan, izan ere, atseginezko erregalu bat. Semea izateak atzeratu than danetan. Eta egun, eskean badabil, semea dau bizia ezarten deutsan eta altxor bezela zaintzen dauan aingeru ona.

Kemena barrituz beste ate baten aurrean:

- Semetxo bat daukat goserik. Il bear jat. Il orduko, bearbada, zoratu.

-Alperrak eta nagiak beti inoren kontura bizi nai. Gaur ere bazatoz? Zuri emoteagaitik ain barik gelditu bearko dot laster.

Giza-biotz guztiek ei daroe tinkaturik errukia. Mamian ez bederen. Okoloren baten ondo gordeta agian. Askoren biotza sasfiitaka biurtu da eta sastrek eundu dabe sasi-ariz oial itogarria. Naaspila orretan urkatu urrikaria.

Kikila ausardiaz garaitu ta beeragoko etxemailan dakusgu kantu bardina dandalatuz:

-Semetxoa goserik daukat! Semetxoa goserik! Erruki zaitez, arren! Zeozertxo jateko, edo dirua jana erosi aal daidan.

-Barrero? Zer egin dozu atzo emondakoaz? - ezerez bat izan zan emoniko ori. -Ardaotan eralgiko zenduan zuk seguru! Jatekoa erosteko dala jakingo baneu, emongo neuskizu. Nork jakin? Zu lango nagiek jatea baino edatea gurago. Eta kalte egiteko ez deutsut emon nai.

Sastakan suntsitu kontzientziaren erruki-deadarrak. ?)ihozperak ere aurkitzen, baina inor ez da geiegian irristatzen. Txanpon batzuk. Txatarra, soilik.

Atez-ate eta etxerik-etxe egun osoa ibili ondoren, dana ebainduta biurtzen da gorde-lekura. Zeozer erosteko ustetan, batu dituan limosnak atera ditu bidean. Guztira ogitartekoen bat eta, dirutan ez da berreun pezetatartzen. Eskuak zabalik, tinko-tinko gelditu da pezetoi begira. An dago amar orduko lotsariaren saria! Uin aundi zakarrek beretu dabe Luziaren barnea. Jauregi ederrak, etxe aberatsak, janari atsegin-ugariak, erosotasunez eta geikeriaz gainezka bizi diran personak jatorkoz burura.

Nik semeari jaten emoteko berreun pezeta bakarrik! -ito jako eztarrian garrasi mina.

Ez dauka negar egiteko beste indarrik. Garraztasunak agortu deutsoz sentimentuak. Bat bakarra dager bizi, sutsu, bortxati. Gizartearenganako ondorik gabeko iguina ta gorrotoa.

- Suak artuta balego oro!!! -tripak jaten.

VI

Bruno ere eskean dabil; ez aterik ate, ka1lh baino. Jendea ugarien dabilen kaleetan, batik bat, ibilian bilatzen dauan jendeari bere premia jakinaraziz. Onenean, kolkoan daroan itunak erakutsi deutso doinu goibela erabilten. Eskoia luzatuz:

-Limosnotxo bat, mesedez! Zertxobait, andrea. Ez daukat zer jan. Gose naz!

Jendea joan doa gelditzeko astirik gabe, naiz eta gerotxoago alkarrizketa deusezetan jardun. Edo barren baten egon eta egon bear ez dan zurrutean osasuna eta ondasunak galtzeko bidean.

-Limosnatxo bat, jauna. Zuk zenbat gura jaten dozu, nik, ostera ez daukat zer jan!

Begi, arpegi, gorputz danean ageri gosearen aztarrenak. Ikuste utsak darakus Brunok ez dauna patxadazko jatekorik egin aspaldian. Bizi bada giza-izaerak dituan indar ezkutuen iraupenez bizi da.

Gerotxoago denda baten sarreran egertzen. Emen ere jendea ugari dabilelako, ziur. Bere kantu goibela abestzen asi da barriro:

-Izan zaiteze nire erruki! Gose naz! -eskutxoa luzatzen begietan gogoaren irrika-garra iragarriz.

Entzungor? Entzun ere ez? Ez ikustea egin? Ikusi ere ez? Ez dakigu. Dakiguna mutiko gosetiaren eskutxoan ez dala txanpontxo bat ere somatzen. Ez jatorke gogora erdibitu leitekean pentsamenturik. Irabazia dabe, ta ain bere daukie!

Zutik egoten nekatu ta lurrean jesarri da. Ez dauka itz barririk jendearen biotza ukitzeko, eta ixilik darrai denda barruan ondatzen diran diru piloak oldoztzen. Personenganako uste ona galdu dau. Ala bada ere, ezagutu-ezineko margodun trapu zaar bat edatu dau lurrean, baten bat biotz-ukituko dalakoaren esperantzan.

Noizean bein, umearen begi tristeak eta azur utsa ikusirik, biotz-zirrara nabaritzen dauanaren bat agertzen eta txanpon batzuk botaten trapu zaarrera. Pezeta bat, bost, inoiz ogetabostekoren bat. Au asko emon daualakoaren pozez gelditzen.

Gogaitu da jarrita. Zutundu eta erakusapaletan begiak zuurtu. Bere kautan:

-Oneek bai jantzi ederrak! Nork euki leiken bat dotore ibilteko, beste umeen antzera.

Jende artean urturik barrura lastertu da bultzaka. Liluratzen ango gauza ederrekin. Danak nai ta ezin erosi dirurik ez dau ta. Ona, ara begiratu, arduradunak zaindu ta inork ikusten ez daualakoa oartu dauanean, praka gorri batzuk eskuratu ditu. Aal izan dauan ondoren ezkutatu eta ezer egin ezaren itxuran, mantso-mantso, urteera aterantz zuzendu ditu bere pausoak.

Bapatean, saltokiko sirenak asten dira irrintzi ozenak garrasika jaurtitzen. Dendan dagoan jende guztia tent jarri da. Arduradunak lasterketa bizian, mutila aurretik, Brunoren jarrai. Onek bizkor darabilz oinak, baina,

jesusean, nekatu jakoz eta biotza usutu. Lurrera jausi da leertuta. Arduradunek astinaldi on bat emon deutsie.

-Lapur ori! Umerik asi zara lapurretan. Nork irakatsi deutsu?

Arikaren arikaz eta zigorkadaren zamaz ez dauka adorerik itzik egiteko. - Orain orretara bazabilz, zer izango ete emendik urte batzuetara?

Bertan beera lurrean itzi eta biurtu dira dendara. Bruno ere jagi da noizbait oso ebagita. Oituta dago orrelakoetan. Batzuetan ondo urteten beste batzuetan txarto, oraingoan bezela.

Trapu zaarrean dituan diruak gorde eta txabolara bidea artu dau. Orduko an dago ama. Ardura bat bakarra daroa biotzean tink ezarrita; Bruno bere semea galduko daunaren bildurra.

-Edozein egunetan siku geratuko jat gosez. Orduan ez dau nire bizitzak zentzurik izango.

Sartu daneko maite-mosu ertsi-luzea emon deutso.

-Asko batu dozu? -samur.

Atera dau trapu zaarra ta amari emon. Arin egiten dira kontuak. Eun eta berrogetamar pezeta. Urren daben dendara jatsi ta ogitarteko bi erosi ditu Luziak, eta igali batzuk. Egun orretako janari bakarra! Jan eta lur gogorrean etzun, loaldia egiteko itxaropenez.

Mutikoa, bai, laster ondatu da maitagarrien erreinuan. Ama, ostera, pentsamentuak irauli ta irauli. Zoriontsu izan zanaren aldia jatorko gogora. Ames zoragarriak inguratu dabe unetxo baten. Zoritxarrez, ain laburra izan da zorialdi au! Tupustean, dan errealitateratu da aizto puntaren zastada minbera nabaritu dau biotzean.

Zoratu aginean dager. Aaztu ditu maitasun sentimentu guztiak eta etsipen irrintzia jaurti dau ozenki bere oiartzuna mendi gainek edatuz:

-Aitak ete amak sortu ez banindue!!!

LEMA: Aita-ama maiteak, mundura zetako eman izan nauzue zorigaitz untako?

'(ERRI-OLERKI batetik jaso).

-Bazatoz?

-Nora?

-Ortik.

-Nora da, ortik?

- Basorantz edo... Mendirantz edo... Nonbaitera. Beti emen egoteak gogaitu egiten nau.

-Aitak eta amak zer esango dabe?

-Ondo dago aitaren eta amaren esana egitea; baina inoiz geurea ere egitea, ez da txarto egongo... Goazen!

-Ez dakit zer egin.

-Tira, goazen eta kito. Orain arte ikusteko erarik euki ez dogun gauzak miratzeko bide izango jaku ostera au.

BATEN DAGIGUN

TXIRU-LIRU-LI

Irakurlea: Eliseo Lejarza - Karmeldarra - (Zeanuri) Textoa: Berak idatzitakoa